

Arrazismoa Estatu Batuetan; Sezesio gerra amaieratik 30. hamarkadararte

Kontextu orokorra eta bi filmen azterketa; *The Birth of a Nation* (1915) eta *Django Unchained* (2012)

Uxue Magariño

Susana Serranok zuzendua

Ikus-entzunekeo gradua, 2020-2021

AURKIBIDEA

| | |
|---|-------|
| 1. Sarrera..... | 3-4 |
| 2. Bultzada arrazista: Sezesio Gerratik Depresio Handira (1865-1930)..... | 4-20 |
| 2.1 Gerra eta ondorioak..... | 4-7 |
| 2.2 KKKren sorrera eta eragina | 7-8 |
| 2.3 <i>Black Minstrel</i> (1840-1900)..... | 8-9 |
| 2.4 <i>The Birth of a Nation</i> (1915) eta KKKen bigarren olatua..... | 9-12 |
| 2.5 Emigrazioaren aurkako legeak (20.hamarkadan)..... | 12-14 |
| 2.6 Kultura beltzaren sorrera eta gorakada..... | 14-20 |
| 3. Bi pelikulen analisia..... | 20-32 |
| 3.1 <i>The Birth of a Nation</i> (1915)..... | 20-26 |
| 3.1.1 Testuingurua..... | 20-21 |
| 3.1.2 Sinopsia..... | 21 |
| 3.1.3 Analisia..... | 21-26 |
| 3.2 <i>Django Unchained</i> (2015)..... | 26-32 |
| 2.2.1 Testuingurua..... | 26-27 |
| 2.2.2 Sinopsia..... | 27 |
| 2.2.3 Analisia..... | 27-32 |
| 4. Ondorioak..... | 32-34 |
| 5. Bibliografia..... | 34-41 |
| 6. Anexoa..... | 41-45 |
| 6.1 Irudiak..... | 41-45 |

1. SARRERA

Egun borborrean dagoen gai bat izanik eta Europar emakume zuria izanik, gutxi asko dakidala iruditzen zait Estatu Batuetako arrazismoaren inguruan historikoki hitz eginda, eta aukera ezin hobea iruditu zait gaiaren inguruan ikasi eta ikuspuntu ezberdinak lantzeaz gain, nire ekarpen txiki bat egitea nire testuingurua kontuan izanda historikoki esanguratsuak izan diren bi filmen analisi edo azterketetan; *The Birth of a Nation* eta *Django Unchained*. Biak oso testuinguru ezberdinetan landu zirelako deigarria iruditu zait hauen arteko erlazio, antzekotasun eta ezberdintasunak aztertzea eta hauen baitan inplizitu eta esplizituki agertzen den beltzen aurkako arrazismoaren lanketan sakontzea.

Analisi hauek burutu ahal izateko testuinguru historiko bat lantzea ezin bestekoa da eta bi film hauek garai berean kokatzen direnez; Sezesio Guerra amaieratik Depresio Handirarte eman zen arrazismoari buruz landuko dut testuingurua. Jakinda momentuko gizartearen erantzuna bai esparru juridikoan bai kulturaren eta jarrera honek urteetan zehar izandako eragina egun ere guztion ahotan dagoela, arazoaren sustraiak hobeto ezagutzeko aukera ezin hobea iruditu zait eta honek kultura beltzean izandako eragina ezagutzeko parada aparta. Gainera gehitu beharra dago, *Netflix* bezalako plataforma garrantzitsuetan hainbat eta hainbat dokumental berri agertzen ari direla arazo hau jorratuz.

Beraz planteatuko diren hipotesiak ondorengoak dira: Zein izan zen esklabotasunaren indargabetzearen ondoren zein izan zen beltzen aurkako jarrera orokorra? Erantzukizun juridikoak izan zituen arrazismoak? Beltzen bizitzetan eragina izan zuen zapalketa honek? Positiboa izan zen kultura beltzarentzat zentzuren batean? Jarrera hauek garaiaren arabera errepresentazio ezberdina izan dute zineman? Oso ezberdinak dira Tarantino eta Griffithen esklabotasunaren irudikapenak?

Lehenik eta behin testuinguru historiko zabal bat landuko dut idatzi honetan, Sezesio gerrik izandako ondorioetatik hasi, *KKK*ren sorrera eta garapenaren azalpenetik, *Black Minstrel* bezalako ekintza kulturaletatik, *The Birth of a Nation*en gizarte eraginetik, aldaketa juridikoetatik pasatuz; azkenik guzti honek "beste alderdian", hau da kultura beltzean, izandako efektua ikertuz. Ondoren lanaren bigarren atalean, analisisian, *The Birth of a Nation*en testuinguruarekin hasiko naiz, sinopsiarekin jarraitu eta honen analisiarekin amaituz; *Django Unchained*ekin egitura bera jarraitzeko intentzioz. Segidan ondorioen atala garatuko dut, hasieran ezarritako galderei erantzunez eta ateratako ondorio orokorrak

izkiriatur. Azkenekoz laneko informazio guztia garatzeko erabilitako bibliografia zehaztuko dut.

Metodologiari dagokionez esan bezala bibliografia landuko dut tresna nagusi gisa, zinemaren arloan ezin bestekoa den ikerketa lantzeko oinarri ezin hobea delako eta honi esker garai ezberdinetako lan eta edukiekin pentsamendu ugarien garapen eta norabidea ezagutu dezakedalako.

2. BULTZADA ARRAZISTA: SEZESIO GERRATIK DEPRESIO HANDIRA (1865-1930)

2.1 GERRA ETA ONDORIOAK

XVII.mende hasieran esklabo Afrikarrek lehen aldiz Amerika iparralde eta Karibera gurutzatu zutenean, beltzen zapalketa historikoaren lehen urratsa izan zela esan daiteke eta ibilbide hau beste hainbat esklabo trata transantlikoek egiten zuten itsasbidea izan zen. Eskulan beltza beharrezkoa zen eraikitzen ari zen herrialde batentzat, baina, batez ere, Estatu Batuetako hegoaldeko landa erraldoietan lan egiteko, non esklabotza beltzean oinarritutako sistema ekonomikoa sendoa zen. Iparraldean, oro har, permisibitate eta tolerantzia handiagoa egon zen hegoaldean baino.

1830 urte inguruan, estatuetako gobernuek *Kode Beltzak* bezala ezaguturiko legeak ezarri zituzten non beltzei bai eskaintzen zitzaizela ezkontzeko, jabetza izateko eta tribunaletan parte hartzeko eskubidea baina aldi berean ilegala egiten zuten hauentzat epai-mahaietan parte hartzea, zurien aurka testifikatzea edo miliziaren parte izatea. Honekin beraz berriro ere afroamerikarrak ekonomikoki desgaitu nahi zituzten eta hierarkia soziala mantendu hegoaldeko gizartean, kasu batzuetan beltzei bozkatzeko edo lurrak alokatzeko eskubideak ere ukatuz. Adamsek (2000:103) dioen moduan “esklabutza noski desagertu zen baina Hegoaldeko legislatura berriko Kode Beltzak ia gauza bera ziren”. Gerra aurreko sistemaren egonkortasun ekonomikoa mantentzeko ezinbestekoak izan ziren esklaboak eta kode hauen bitartez egitura ekonomiko hori imitatzen zuten lan librearen itxurak eginez (Zimmerman, 2017). Kode hauek gerra ondoren mantendu ziren batez ere Hegoaldean, Berreraikuntza garaian alegia.

1863 arte beltzek ez zuten lortu zapalkuntza teknika hauen erabilera ezeztatzea baina urte horretan Estatu Batuetako konstituzioan hain ezaguna eta garrantzitsua den Emantzipazioa eskani zitzairen eta bi urte ondoren *XIII Zuzenketa*¹ sortu eta gehitu zen.

1866ko *Eskubide Zibilen Legeak* Gerra Zibileko zuzenketekin batera funtzionatu bazuen ere *Kode Beltzek* gizartean eragin handia izan zuten hauek baliogabetzeko eta baztertuak izan ziren estatubatuarren artean.

Errepublikanoek onarturiko lege hau federala bezala sortu zen, hiritar guztien eskubideak babesteko asmoz eta segregazioa debekatzeko baina eskubide politikoak alde batera uzten zituenez, 1875an beste lege bat sortu zen arazo hauek konpontzeko intentziorik.

1868an, lehen *Eskubide Zibilen Legetik* bi urtetara, XIV. Zuzenketa² idatzi zen. Berreraikitze garaia ondoren etorri zena, Rayford W. Loganek (1954) dioen moduan, afroamerikarren historiaren barnean hutsunez beteriko edo puntu oso baxu bezala azaldu daiteke non bigarren mailako hiritar gisa aurkezten ziren printzipioz gizon zuriena zen herrialde batean.

Aipaturiko *Eskubide Zibilen Legea* berritua izan zen 1875an eta onartua Kongresuaren eskutik. Legeak tratu bera bermatzen zuen etxebizitza, garraio publiko eta antzerkietan baina aldarrikatu eta gutxira, Estatu Batuetako Gorte Gorenak legearen hainbat atal Konstituzioaren aurka zeudela ebatzi zuen. Kongresuak pertsona edo enpresa pribatuen gaineko kontrolik ez zuela argudiatzen zen batez ere (Adams, 2000:108). Ondorioz errerepublikanoek defendatzen zituzten beltzen eskubide zibilak areagotzeko intentzioa bazegoen ere beltzak etxebizitzan, enpleguan eta bizitza publikoan oro har bereizten hasi ziren, bigarren mailako herritar izaten. Hainbat afroamerikarrek formalki kexak aurkeztu bazituzten ere Kongresuak Estatuaren ekintza besterik ez zuen debekatu esan bezala, esanez interes pribatuko gaiak ezin zituztelako kudeatu.

Guzti hau noski Madison Grant (1916) idatziriko liburutik datorren “zuriak beltzen gainetik” pentsaerarekin ezin hobe erakusten da. Bertan arraza banaketaz behin eta berriz bere iritzia ematen du, honen alde kokatuz eta beltzak zurien aurkako arrisku gisa aurkeztuz.

¹ Zuzenketa honen bitartez Estatu Batuetan esklabotasuna deuseztatu zen eta debekatu. Honekin batera nahi gabeko morrontza ere galarazi zuten, kasu oso espezifikoak kenduta; adibidez delitu batengatik kondenatua zeudenenak. Hori esker Estatu Batuetako esklabo guztiei askatasuna eman zitzairen eta beraien bizitzak izateko aukera eman.

² Hori esker Estatu Batuetan jaiotako edo naturalizatutako pertsona guztiei hiritartasuna eman zitzairen. Hiritar zuri askoren artean gaitzespen handia izan zuen, momentu horretatik esklaboak aske ziren guztiz baina bazterte fisiko edo mihizko bereizketa oso agerikoa zen afroamerikarren aurka gizarte barnean

Beraz hainbat lege diskriminatzaile sortu zituzten beltzen aurkako zapalkuntza hori guztiz ez ezabatzeko, *Jim Crow Legeak (1877-1965)* deituak eta arraza osoa bigarren mailako egoeran mantentzen jarraitu zuten. Laufsek (2013) kontatzen duen moduan lege hauek bi kategoria ezberdin zituzten; afroamerikarren eskubide-gabetzea ekartzen zutenak eta ia bizitzaren alderdi guztietako segregazioa ekartzen zutenak. Lege hauek batez ere eremu publikoetan arraza banaketa bat bultzatzen zuten; garraio publikotik hasi eta erakunde sozialetaraino. Gainera arau hauek ez bazituzten betetzen, mespretxuak jasaten zituzten edo zerbitzua eskaini ere ez zitzaien egiten, ekintza biolentoak ekartzen ez bazituen noski.

XV. inmineda 1870ean eman zen, eta bertan bozkatzeko eskubidearen ukapen ezina ematen zen biztanle guztientzat, arraza, kolore edo aurreko esklabotza egoera kontuan izan gabe. Hau aurrekoa bezala ez zen hiritar askoren gustuko izan eta batez ere hegoaldeko estatuetan eragozpen ugari jarri ziren hau betearazteko.

Historikoki ikus daitekeen moduan, 1870-1890 tartean, batez ere Hegoaldeko Karolina, Misisipi eta Luisianan beltzak biztanleriaren gehiena ordezkatzeko zuten eta botoaren eskubide horrekin afroamerikarrek lehen aldiz aukera izan zuten beraien herrialdeko arlo politikoan parte hartzeko eta aldaketak lortzeko. Botere politiko hau mantentzeko arriskua ikusi zuten Hegoaldeko demokrata zuriek eta 1884an Chester A. Arthur errepublikanoak irabazi zuten momentuan konstituzioaren laguntzat boterea berreskuratzea lortu zuten.

Ekintza legal hauek hainbat ziren; hauen artean zerga ezartze altuak eta instituzio batek garaturiko alfabetizazio proba bat. Bigarren hau arazo larria zen afroamerikar askorentzat, ez zekitelako ez irakurtzen ez idazten beren iraganeko esklabotza egoeraren ondorioz eta horrez gain bozkaketa izen-emateak ere sarrarazi ziren.

Aipatzekoa da ere askoz zaharragoa den txinatarren imigrazioaren aurkako legea (1882), Margarita Rodriguezen (2017) BBCko erreportai batek argitzen duen moduan “baieztatu daiteke etorkin txinatarrek izan direla Estatu Batuerara beren borondatez etorri ziren talde eta etnietatik tratatu txarrenera jaso dutenak”, arrazismoa beltzek bakarrik pairatzen ez zutela frogatuz hau izan zelako Estatu Batuetako lehen legea arrazagatik soilik etorkinak sartzen uzten ez dituen (De Leon, 2020).

Bazen baita beste klausula bat, “aitonaren klausula” deitua non honi esker beterano eta hauen ondorengoei soilik bozkatzeko aukera ematen zitzaien eta ondorioz esklabo ohiei edo hauen ondorengoei bozkatzeko eskubide hori kentzen zitzaien. (Laufs, 2013) Segregazio fisiko

honez gain segregazio emozional edo psikologiko bat ere gizartean integratua zegoen aipatu bezala, zehazki erlazio kontuekin.

Estatu batzuetan arraza ezberdinen arteko bikoteak debekatuak zeuden eta ez soilik gaizki ikusiak, legediaren kontrakoa zelako.

2.2 KKKREN SORRERA ETA ERAGINA

Ezarritako testuinguruaren arabera ulergarria da ondorengo urteetan jardunaldi bortitzak eman izana, momentuko “arrazza dominatzailea”ren intentzioa afroamerikarrak pobre eta menpeko mantentzea zelako (Laufs, 2013). Indarkeria metodo ugariak hilketak ziren, askotan lintxamenduen bitartez. Delitu grabe baten erantzule ziren beltzak zintzilikatu edo erre egiten ziren baina askotan afroamerikar hauek deliturik burutu gabe ere kondenatzen zituzten, batez ere hegoaldean; W.E.B Du Bois lider afroamerikarrak zioela esaten zen bezala belztasuna kondenatzen zutelako.

Berreraikuntza garaian, zehazki 1866an sortu zen *Ku Klux Klana* Tennesseeen “club sozial” Moduan Nathan Bedford Forrest Generalaren eskutik. *Klana* ez zegoen herrialde mailara zentralizaturik baina talde terrorista lokalen sare bat osatzen zuen. Supremazismo zuria defendatzen zuen talde honek biolentziaren erabilera konstanteagatik zen ezagun eta aipaturiko lege arrazista hauek mantentzearen aldeko jardunak burutzen zituzten. Errepublikanoen eta Berreraikuntzaren aurka zegoen talde honek, batez ere ezkutuan burutzen zituzten jardun hauek mozorro ezberdinez baliaturik; hain ezagunak diren tunika eta kaputxa zuriak erabiliz hain zuzen ere, adarrekin apainduak zeudenak.

Zimmermanen (2017) hitzetan bere osotasunean KKKk 3.500 lintxamendu burutu zituela balioesten da 1865-1900 tartean eta afroamerikarren alde aurkezten ziren zuri errepublikanoak *carpetbaggers* edo *scalawags* gisa identifikatzen zituzten, askotan hauek erasotuz. Honen ondorioz demokratek KKKren alde jokatzeko zuten hauei esker errazagoa zelako hauteskundeak irabaztea, zabalduriko beldurraren ondorioz.

1870ean Kongresuan *Indarraren Legea* onartu zuen, Hegoaldean XIV. zuzenketak ematen zuen berdintasunaren babesa bermatzen zuena baina honek momentuko indarkeriaren aurkako neurri leunegiak zituen.

Mendearren 60. urteetako hamarkadatik aurrera supremazista zuri hauek Hegoaldeko hiritar beltzen artean beldurra zabaltzen ibili ziren 1871an Estatu Batuetako Kongresuak *Klaneko* liderren atxilotze eta espetxeratzea ekarriko zuen legeak onartu ziren arte. Baina

kontuan izanda gobernu federala hegoaldeko hainbat estatuetatik joan zela aurreko hamarkadan eta Rutherford B. Hayes presidentek 1877an azken tropak bertatik atera zituela, arazo larriagoak etortzear zeuden.

Hegoaldean lintxamenduak geroz eta ugariagoak bilakatu ziren ez zegoelako inor XIV eta XV. zuzenketak betearazteko eta *Jim Crow Legeak* ez ziren desagerrarazi XX. mendearen 60. hamarkada iritsi arte.

2.3 BLACK MINSTREL (1840-1900)

XVIII. mende amaieran jatorria duen genero honek zirku emanaldien antzekoak ziren eginkizunetan jatorria badu ere; hurrengo urteetan izan zuen oihartzunik handiena Mark Twain berak bere obretan azaldu zuen moduan, sortu eta lehen hiru urteetan agerturiko ehunka antzerki talde berrik klase ertainean izan zuen eragina sekulakoa izan zen (McCoy, 2009).

Batez ere Estatu Batuetan lantzen zen antzerki musikal hauek arrakasta handia izan zuten gizarte zuri batean, non estereotipo eta komediaz baliatuz zurien gehiagotasuna azpimarratzeko aktore zuriek aurpegiak beltzez pintatzen zituzten. Antzerki hauetan batez ere *sketch* ezberdinak eta dantzak burutzen zituzten eta 1830an sortu bazen ere 1848 inguruan jadanik ekintza nazional bilakatu zen eta herriarentzat arte formal gisa identifikatzen zen.

Bertan opera eta hegoaldeko plantazioetan ustez nagusitzen ziren kantuak nahasten ziren eta aktore zuri hauek beltzak imitatzen zituzten *backfacearen* bitartez. 1855 inguruan aktore beltzak txertatzen hasi baziren ere, hauek gutxiestearen helburua mantentzen jarraitu zen, askotan aktore beltz hauek ere beraien aurpegiak beltzez margotzera behartuz. Musika "beltz" hau, hainbat autoreek urteetan zehar aipatu duten moduan, zuriek zuten ideia edo iritzietan oinarritzen zen, batez ere banjo, "lan kanta" edo folklorea landuz eta ondorioz antz handiagoa zuen Europa iparraldeko musika Eskoziar edo Irlandarrarekin beltzen kulturaren nortasunean hain garrantzitsua den *jazza* baino. Ezin da ukatu hala ere Brittanica entziklopediako editoreek (2020) dioten moduan *minstrela* 1830 eta 1840 urte tartean musika industriaren epizentro bilakatu zela puntu gorenean zegoen momentuan.

Musika genero honek ere *cakewalk* edo *black bottom* bezalako mugimenduak ekarri zituen beltzak ikuskizunetan txertatuak izan zirenean eta *minstrelarentzat* konposaturiko kanta asko ondoren klasiko bihurtu ziren *jazz* talde ezberdinen interpretazioei esker. *Black*

bottoma zuzenean *jazz* tradizionalarekin lotu daiteke eta *cakewalka* musika tradizionalarekin. Bi mugimenduek hegoaldeko plantazio inguruetan jatorria dute eta antzerki genero honi esker esan bezala zabalduak izan ziren Estatu Batuetan zehar. Ondare nabarmena izan bazuen ere ondorengo urteetan, Eskubide Zibilen garapena aurrera zihoan hala, antzerkiaren ospea gutxitzen joan zen.

Hiru akto nagusi aurkezten zituen *Black Minstrelak*; Dantzak, kanta eta *sketch* ezberdinak, hitz joko ezberdinak eta azkenik plantazio musika ezberdinen edo antzerki herrikoi baten parodiak. Beste hainbat ikerketek bi aktotan banatzen dituzte emanaldi hauek baina elementu konposatzaileak berdinak dira.

Ekitaldi hauek batez ere gaur egun deigarriak egiten dira arrazismoaren gaiarekin dagoen jakintzagatik edo jarreragatik batez ere, bertan esklaboak pozik erakusten direlako, beraien egoerarekin ados eta esklabotzaren alde, zuri segregatzaileen aldean intelektualki maila oso baxuan errepresentatuz. Segregazionista hauetako askok ordea antzezlan hauek errespetu falta bat kontsideratzen zuten beraien ustetan esklaboak “atsegina eta xarmagarri” irudikatzen zituztelako, “hegoaldeko instituzioa barrengarri utziz” (Sweet, 2000: 28).

Minstrelak ez ziren soilik supremazia zuriaren adierazpen arrazistak, gizon zuriek monetizatzen zuten konbekzio konplexu ezberdinen bilketa baizik eta Michael Eppek (2003) adierazten duen moduan afrikar-amerikarren kultura, keinu, kanta eta eskubideen “lapurreta” baizik. *Blackface*aren bitartez beltzen identitate publikoa zapuzten zen eta arraza beraren nortasuna eta izatea garatzea ekiditen zuen (Rogin, 1996), beltz izateak konnotazio negatiboak soilik zituelako jabe/esklabo erlazioak indartuz. Beltzek etengabe beraien eguneroko bizitzetan irain eta tratu hauek jasateaz gain ekitaldi hauek jarrera negatiboa areagotzen zuten eta beraienganako irudia geroz eta gehiago madarikatzen zuten estereotipo hauek etengabe elikatzen zirelako (Mullen, 2012).

“Zaborra den gizarte zuria naturak ukatu zion gorpuzkera lapurtu digu, dirua lortzeko eta beraien berdina diren hiritar ustelei gustua emateko.”- Frederick Douglas (1948: 2)

2.4 THE BIRTH OF A NATION (1915) ETA KKKEN BIGARREN OLATUA

Ondoren filmaren analisiaren atalean sakonago landuko dut gaia baina ezinbestekoa da Estatu Batuetako arrazismoaren eta honen garapenaren inguruan hitz egiten den momentuan filma burura etortzea. Momentuan arraza ezberdintasunak nabariak ziren eta

arraza-segregazioaren aldeko mugimenduak burutu ziren presidentearen eskuetatik erabaki hauek pasatzeraino.

20. hamarkada aldaketa kultural eta gatazka sozialen garaia izan zen eta estatubatuar askorentzat hiri handien garapenak, kontsumo kulturaren sorrerak eta iraultza moralak beste hainbat gauzen artean iraganeko kateetatik askatzen lagundu zien baina beste askorentzat kate hauek estutu besterik ez ziren egin. Gizartea anitza bilakatu zen eta honek immigrazio eta arraza arazoengatik baina batez ere gorrotoagatik giroa bero mantendu zen (Rubio, 2010).

Filmak gizartean sekulako eragina izan zuen, jadanik lokarturik zegoen *KKK* berpizten lagundu zuelako eta boterea eman ziolako masa komunikabideetan. 1915eko abuztuan eman zen Leo Frank judutarraren lintxamenduak eta honek ekarri zuen epaiketak izandako prentsaren jarrera antisemitistak film honen sorrerarekin batera inspirazio gisa funtzionatu zuten talde erradikalentzat eta ondorioz aurrekoa baino talde formalago bat osatu zen 1929an, bere ospea gutxiagotzen joan zen arte arlo ekonomikoan batez ere buruhaustek zetozelako gizarte estatubatuarrarentzat.

Elaine Frantz Parsons (2005) historialariak dioen moduan lehen *Klana* ez zen inoiz ondo antolatua egon bigarrena ez bezala eta talde kaotiko askoren nahasketa gisa definitu zitekeen. Hala ere, autoritateek ez zuten inoiz honen kontra jokatu edo oso momentu zehatzetan soilik parte hartzen zuten, salaturiko zuriak gehienetan barkatuak ziren eta salatutakoa erruduna zela erabakitzen bazen, ia inoiz ez zen kondenatzen.

1915an jadanik lehen *Klana* itzal urrun bat kontsideratzen zen baina D. W. Griffithen filmak hau goraiatzeko eta mitifikatzeko du *The Clansman* liburu eta antzezlanak eta *The Leopard's Spots* Thomas Dixon en liburua oinarri izanda. Baina batez ere ospea irabazi zuen Woodrow Wilson, momentuko Estatu Batuetako presidentea, filma ikuskatzean bere zehaztasuna goraiatu zuenean. Ezin da ukatu Griffith berak Wilsonen esandakoaren ondorioz bere karrerak bultzada handi bat jaso zuela klase erdiko estatubatuarren bizitzetan sartzeko. Filmaren estreinaldiaren ondoren aipaturiko Leo Franken epaiketa eman zen non laburki azaldurik Georgiako fabrika bateko gerentea zen gizona Mary Phagan gaztearen hilketagatik salatua izan zen epaiketa eztabaidagarri baten ondoren eta biziarteko kartzela-zigorra ezarri zitzaion jarraian *Knights of Mary Phagan* deituriko turba batek bahitu eta publikoki lintxatzeko (Dinnerstein, 2003). Askok Hegoaldean Frank errudun kontsideratzen

zuten eta *The Birth of a Nation*eko Flora eta Mary Phaganen artean analogia antzeko bat ikusten zuten, ondoren hobeto azalduko dudana.

Guzti hau kontuan izanda iraganeko *Klan*eko kide batzuk eta *Knights of Mary Phagan* taldeko beste kide batzuk bildurik Willian J. Simmonsek klan berriaren hiru xede aurkeztu zituen, aurreko buruzagi izan zen Georgie Gordonen hitzetan oinarriturik *Ku Klux Klan* eko idazki zahar batzuetan (1867: 1-3) ikus daitekeen moduan:

“-Lehenik: Ahula defendatu, errugabea eta babesgabea dena legeak baztertutako bortitz eta basatien gizatxarkeri eta irainetatik; zauritu eta zapaldua erreskatatu; sufritzen duena eta zoritxarrekoa sorotsi, batez ere soldadu konfederatuen alargun eta umezurtzak.

-Bigarrenik: Estatu Batuetako konstituzioa babestu eta defendatu.

-Hirugarrenik: Lege konstituzional guztiak betearazten lagundu eta hauek ondoren babestu, legez kanpoko atxilotze eta guneko legeak jarraituz egiten ez diren epaiketetatik.”

Iniziazio-errituak, pasahitz sekretuak eta keinu ezberdinak zituzten oso garatu eta antolaturiko botere hierarkia bat azpimarratzen zutenak (Dessommes, 1999). Askoren ustez club sozial eta maila ezberdinetako marketing enpresa hibrido bezala kontsideratzen den *Klan*ak bere bigarren olatuan bi hierarkia ezberdinekin funtzionatzen zuen, bata bestearengandik nahiko independentea zena Ronald Fryer Jr. eta Steven Levittek (2007) adierazten duten moduan.

Bi hierarkietako bat *Klan*eko kide guztiez osatua zegoen, kargu baxuenetik hasi eta goi-karguetaraino, beltzak beldurtzeaz eta politikan eskua sartzen saiatzeaz arduratzen zirenak. Beste hierarkian talderako kide berriak bilatzeaz arduratzen zirenak zeuden, maila ezberdinetako marketing taldea bezala ezagutzen zena. Bigarren hierarkia taldea beraz kide guztientzat diru sarrera gisa funtzionatzeko zegoen batez ere.

*Klan*aren parte bilakatzea ez zen merkea, hasierako 1\$ inskripzioa alde batera uzten badugu. Lehen urteak bazkide izan nahi bazenuen 23,30\$ balio zuen, 356.82\$ inguru gaur egun eta ondorengo urteetan 6,80\$, 8.82\$ inguru gaur egun (Alexander, 1965).

Newton (2006) eta Wadenen (1987) analisisien arabera, egiturari dagokionez ondorengo banaketa piramidala ematen zela esan daiteke:

-Inperioa: Estatu mailako antolatzaileak, buruzagi gisa Enperadorea edo *The Great Wizard* duena. Azpitik *Imperial Wizard*a dugu, buruzagi exekutiboa dena hamabost kideko

Imperial *Kloncilium*arekin lagunduta. Honek berarekin zekartzan *Klaliffa* (lehen presidente ordea), *Klazika* (bigarren presidente-ordea), *Klokarda* (hizlaria), *Kludda* (kapilaua), *Kligrappa* (idazkaria), *Klabeea* (diruzaina), *Kladda* (gidaria), *Klaragoa* (barruko zaindaria), *Klexterra* (kanpoko zaindaria), *Klonsele* (aholkulari nagusia), *Night Hawka* (mezularia) eta lau *Klokann* (auditoreak).

-*Realmsak*: *Grand Dragon*ek ikuskatzen zituzten eta hauen administrazio guneek kide berrien izen emateaz arduratzen ziren, estatu arteko ekintza politikoak koordinatzeaz gain. *Grand Dragon*aren menpe 15 *Hydras* osaturiko taldea zegoen, *Kloncilium*aren erantzukizun bera zuena baina estatu mailan.

-Klansmen indibidualak edo *Ghouls*: Lekuko *Klavern* ezberdinetan banatuak.

Klanaren bigarren ekaitz hau esan bezala pixkanaka lausotzen da David Stephenson Alderdi Errepublikarraren parte zena Sozialista eta Demokratakoa izan ondoren, *KKK*ko kide izan zela adierazi zuenean. Hau nahikoa ez balitz, Madge Oberholtzer hil eta bortxatzeagatik kondenatua izan zen estatu mailan izugarrizko oihartzun izan zuen epaiketa baten ondoren. Historialari batek dioen dioen moduan “Stephenson eta beste hainbat kideek ez zuten gaitasun edo gogorik sistema politiko manipulatuta eta *Klan*aren manifestuko ideiak betearazteko. *Klana* beraiantzat aberasteko eta maila pertsonalean boterea lortzeko medio soila zen.” (Moore, 1991: 186)

Eskandalu hauen ondorioz *Klana* 30. hamarkadan politikatik desagertu zen gutxika eta Hiram Evans taldeko liderrak 1939an Indianako James Colescotti saldu zion, Atlantako Samuel Green medikuari ere hau emanez. *Klan*ak azken sastada jaso zuen Colescott nazien aldeko talde ezberdinekin erlazionatua zegoela publikoki ezagutu zenean eta 1943ko Detroiteko arraza gatazketan besteak beste. 1944an 685.000\$ ordaintzera behartu zen entitateak zerga atzeratuak zituelako eta ondorioz lider berria *Ku Klux Klana* ixtera behartua sentitu zen. Azken batean *Klana* 20. hamarkadan ezin hobeto funtzionatu zuen marketing amarrua izan zen eskema piramidalaren itxura handia hartu zuena “gorrotoa saltzeko pizgarri ekonomiko izugarri zituzten salmenta agenteen ondorioz” (Fryer eta Levitt, 2007: 34).

2.5 EMIGRAZIOAREN AURKAKO LEGEAK (20.HAMARKADAN)

Lanean zehar aipatu dudan moduan XX. mende hasierako lehen bi hamarkadetan beltzak hegoaldeko lurralde publikoetan baztertuak eta segregatuak izan ziren eta hauek politikatik ezabatzen saiatu ziren. Aurora Boschek (2005) bere lanean adierazten duen

moduan, Luisianako estatuan 1896an 130.334 hautesle beltz izatetik 1.342 izatera pasatu ziren eta beste hainbat eta hainbat adibide daude esandakoa berresten dutenak.

Segregazio hori maiz Estatu legeek soilik sendotzen zutelaren pentsatzen da baina segregazio hau tokiko araudi, barne arautegi, ohitura eta aztura sozialetan ematen zen; arrazismoa jokabide hauen justifikazio politiko gisa aurkeztuz.

“Imperialismo berria” bezala aurkezturiko mugimenduak iparraldeko arrazismoaren onarpena ekarri zuen eta iparraldeko eta hegoaldekoen arteko adiskidetzeari bultzatu zuen arrazaren kontzeptuan bat zetozelako.

Erradikalismo sudistaren terminoari dagokionez Boschek (2005) dioenaren arabera 1880-1890 urte tartean zuri eta beltz asko Alderdi Populistaren bozkatzailerak bihurtu ziren eta honek kontrako jokaera asko izan zituen hau zapaltzera iritsiz eta bozkatzeari bultzatzen zirela abolizioa ekarriko zutelako politikoa deuseztatzeko intentzioz. Honen adibide dugu Boschek hitzetan ere Tom Watson, beste askoren artean. Georgian 1906an aurkezturiko hautagai populistak honek bere printzipioak soilik beltzak ezabatuz baziren garatuko zirela defendatzen zuten, bere botoa populistak hori bere ideiak aurrera eramaten zituen edozein hautagairi, hau da, beltzak politikatik eta honetan parte hartzetik kentzen zituenari emango ziola. Politika progresista konfederatuak beraz arraza batasuna bultzatzen zuten berrantolaketa demokratiko bat egiteko eta zuriak elkarren artean gehiago elkartzen ziren beltzak “beraien lekua” hartzen zuten bitartean gizartearen aldirietan. Ondorioak beraz berriro ere kaltegarriak ziren beltzentzat eta ez zen teoria hutsean gelditzen.

1919an deportazio olatuak hasi ziren anarkismoaren aurkako kanpaina ezberdinekin batera eta hau herrialdea garbitzeko metodo gisa erabili zen, balore tradizionalak mantentzeko intentzioz Estatu Batu zuri, anglosaxoi eta protestante baten alde. Estatu Batuetan asko hamarkada horretan arraza minoritarioengatik inguratuak sentitzen ziren etengabe “beraien erradikalismoa eta kriminalitateagatik beldurturik.” (Bosch, 2005: 396) Aztertutako datuen arabera 1920an Estatu Batuetan 106 milioi biztanle zeuden, hauetatik 36 milioi lehen eta bigarren belaunaldiko Europar etorkinak ziren eta 185.000 baino gehiago asiarrak (Massey eta Pren, 2013).

Kanpo mugimendu hauen ondorio gisa hainbat neurri ezarri ziren adibidez Hardin 29. presidentearen eskutik 1921ean *Emergency Quota Act* etorri zen immigrazio muga bat ezartzen zuena 357.800 etorkinetara eta herritartasun bakoitzeko %3ko urte-kuota bat.

Honek Boschek (2005) adierazten duen moduan kuota honen erdia baino gehiago Europa iparraldeko eta mendebaldekoentzat gordetzea zekarren.

1924an beste lege bat etorri zen antzeko neurriekin; *Johnson-Reed Legea* eta honek ere immigratzaileek kuotak moldatzea zuen helburu (Estatu Batuetako Enbaxada Argentinan, d.g.). Lege berri honek %2ra jaitsi zuten herritartasun berdineko etorkinen urte-kuota eta 165.000 pertsonetara %85a europarrentzat, zehazki Erresuma Batuentzat (%43) Alemaniarentzat (%17) eta Irlandarentzat (%12).

Honekin beraz Europa iparraldekoa ez zen edozeinen sarbidea murrizten zuen eta asiarrak guztiz baztertzen zituen hiritartasuna arraza guztientzat eskuragarria ez zela erakutsiz.

Aipaturiko bi lege hauek aldaketa historiko bat ekarri zuten Estatu Batuetako legislazioan eta kanpotarrekiko gizarteak izandako erreakzioetan. Depresio Handiarekin batera 30. hamarkadan etorkinekiko erreakzioak gizarte barnean batez ere negatiboak ziren eta geroz eta gutxiago ziren babesa lortu zutenak herrialdean. Kanpotarrekiko jarrerak etengabeak izan dira estatubatuar kulturaren, duela gutxi puri-purian egon ziren antzeko mugimenduak Trump presidentearen eskutik hartutako erabakiengatik eta zabalduko beldurrarengatik. Hau gogoangarria da immigrazio politika hauek 60. hamarkada arte mantendu zirelako eta honek etorri ziren beltzaren mugimenduaren eta etengabeko arraza gatazken txinpartak behin betiko piztu zituelako.

2.5 KULTURA BELTZAREN SORRERA ETA GORAKADA

Guzti hau aztertu ondoren ezinbestekoa da historioaren kaltetuaren ikuspuntua lantzea, edo jarrera hauekiko inpaktuaren inguruan hitz egitea. Zein neurritan baliatu dute egoera kultura beltza eta identitate baten presentzia nabarmentzeko eta aberasteko?

Beltzek lehen aldiz zuriekin kontaktua izan zuten momentuan inpaktu handia izan zuten, hain izan zen nabarmena, non Oxfordeko hiztegi prestigiotsuan XVI. mendearen aurretik "beltza" hitzaren esanahia ondorengo zen "Guztiz lurrez zikindua, kirasduna. Xede ilunak edo hilkorak dituen, bekatari hiltzailea eta zorigaitzokoa, zitala, gaiztoa, zatarra, lotsaizuna dakarrena, zentsuragarria edo zigorgarria" (Bustos, Caro eta Chisco, 2016: 111).

1700ean ingelesak Estatu Batuetara bidaiatu zutenean instituzio afroamerikarra esklabo gisa identifikatu zuten eta hauek gizaki hezigabe kontsideratu zituzten, irrigarri eta perbertsioen jatorri. Hau esan bezala belaunaldiz belaunaldi pasa da eta aurrerago landuko

dudan Darwinismo soziala bezalako teoriak elikatu zituen, “arraza” terminoak arrazismoa justifikatzera ekartzeraino hauek “arraza garbiketa” edo “odol garbiketa” bezalako terminoen aurrekari izanik (Hering, 2007). Jarrera hauek gainera ez zuten soilik zuriek onartzen, beltzek ere urteen poderioz ekintza arrazista hauek barneratu zituzten eta askotan beraien aurkako marjinazio hauek arraza bereko kideen artean ere ematen ziren goi-mailako arraza bat zegoela sinistarazi zietelako.

Mugimendu eta jarrera ezberdin hauei kontra egiteko pentsamendu anitz landu ziren garai hauetan, batez ere berdintasun eta bidezko tratatu lortu baten bila. Honekin “*New Negro*” izeneko mugimendua sortu zen, gizartean zuten bigarren mailako posizioaren salatze gisa eta beraien komunitate eskubide eta eskubide indibidualengatik borrokatzeko prest zegoena. Politikan Europatik jatorria zuten gutxieneko etnikoaren parte hartzea handiagotu zenean, lehen aldiz estatubatuar kultura europarren maila berean kokatzen zen eta mugimendu honek Aurora Boschen (2005: 407) hitzetan “Benetan estatu batuar sentitzen ziren eta kulturalki hegoaldeko eta hiri handietan bizi ziren Europa ekialdeko immigranteekiko hobeago ingelesez hitz egiten zutelako, natiboak zirelako eta beste gutxieneko etnikoak baino lehen iritsi zirelako.”

“*New Black*” mugimendu hau arlo politikoan emateaz gain, sozialean ere ematen zen logikoa den moduan eta lehenari dagokionez ideologia momenturarte ezberdina garatu zuen bere baitan, panafrikanismoa eta Virginia iparralde eta Karolinako mugan kokatzen zen nazionalismo afro-amerikarra konbinatzen zituelako. Gune geografiko honi “*Black Belt*” deitzen zitzaion, eremu emankor honetan tabako eta kotoi sailak aurkitzen zirelako non esklabo beltzek edo oso pobreek zuri aberatsentzat lan egiten zuten. Arlo politikoan Alderdi Demokratik eta Woodrow Wilsonen arrazakeria hau ezabatzen lagunduko zuenaren espektatibak gutxiagotzen joan ziren komunitatean eta 1919tik aurrera pausoz pauso lortu zuen alderdiak onespren afroamerikarra, hegoaldeko demokratik ez bezala, arrazismo kutsu garrantzitsuak zituztelako beraien baitan oraindik ere.

Harlemen gutxika “harrotasun beltza” eta kultura beltzaren garapena ematen hasi zen auzoa klase ertain beltzaren epizentro bilakatuz 1920-1930 urte tartetan eta mugimendu politiko eta kultural askoren sorleku (klase ertaina New York eta Chicago bezalako hirietan gehiengo bilakatu zen).

Central Parken iparraldean kokatzen den auzo hau iraganean zuria izan zen eta 20. hamarkada hasieran Hutchinonek (2020) dioen moduan “Manhattaneko barrutiko hiri

beltzean” bilakatu zen. 135 kaleko NY Liburutegi Publikoan ekitaldi bereziak egiten ziren eta Washington, Baltimore, Los Angeles, Filadelfia eta New York bezalako lekuetatik intelektual afroamerikarrak bertara gerturatzen ziren bertako mundua sozialki oso aberatsa bilakatzen ari zelako. Bertan adibidez NAACAParen lehen kuartela ezarri zen eta batez ere sakonago landuko dudan *Harlem Renaissance*aren garapen leku.

Mugimendu honek artearen bitartez gutxieneko beltzei kentzen zitzaien botere politikoaren alde jokatzeko zuen eta honetarako lehenik eta behin aipaturiko zeuzkaten beraien arraza propioarekiko kutsu negatibo guztiak ezabatu behar zituztela zioten, esklabotzan kendu zitzaiena berreskuratzeko modu betean Aurora Boschek dioen moduan (2005).

Historia berreskuratzearekin batera *The Journal of Negro History* edo *The Negro Society for Historical Research* dokumentazio egiturei esker, arte eta musika beltzaren aldarrikapena etorri zen batez ere *gospel*, *ragtime*, *blues* eta *jazz*aren eskutik eta hori gutxi balitz, literatura beltzaren birsortzea eman zen.

Denboran atzera eginez gero, Booker T Washington bezalako pertsonaia garrantzitsuak aurki ditzakegu; esklabo izatetik pedagogo eta komunitate beltzeko erreferente bihurtu zena. 1901ean bere autobiografia aurkeztu zuen eta momentuko libururik irakurrienetako bat bilakatu zen. Honez gain Alabaman lehen Irakasle Eskola beltzeko kide nabarmena bilakatu zen, ondoren 60. hamarkadan Unibertsitate bilakatu zena. Bere ekintza anitzei eta hainbat filantropoei esker, hegoaldeko estatuetako biztanleria beltzarentzat landatar eskola sare bat osatu zuen, analfabetismoa atzean utziz eta integrazioa bilatuz.

Hala ere aipaturiko panafrikanismoaren sustatzaile nagusi zen Marcus Garvey ere aipatzekoa da; aurrekoak baino transzendentzia handiagoa izan zuelako hurrengo urteetan.

Kazetaria, saltoki burua, editorea eta hizlaria izan zen gizon jamaikar honek 1914an *Universal Negro Improvement Asociaon* eraiki zuen, berrogei urte geroago mugimendu zibilen gorakada animatzeko balioko zuena eta 1918an New Yorken *Negro World* aldizkaria (Maestro, 2009).

Garveyk arraza diskriminazioa instituzionalizatua zegoela defendatzen zuen eta bere diskurtsoaren zati garrantzitsu bilakatu zuen identitate indartsu eta aberats bat osatzearen garrantzia azpimarratuz eta kolektiboaren borondate politiko, sozial, ekonomiko eta kulturak independente baten beharra goraipatuz.

Grantek (2008) dioen moduan bere proiektua alderantzikatutako kolonizazio gisa identifikatu zitekeen eta 60. hamarkadan garaturiko *Black Power*aren inspirazio bezala kontsideratzera ere iritsi da.

Identitate kulturak dimentsio ezezagun batera bidaiatuko zuen *Harlem Renaissance* mugimenduarekin (Price, 2000: 82) eta "*New Negro Renaissance*" deitzera ere iritsi zen sormenaren eta adimenaren garapen garai hau.

Gueto kultural hauek artista, poeta, literato, musikagile eta intelektual mordoaren gotorleku bilakatu ziren eta batak besteetatik elikatzen ziren kultura aberats eta eragin-sortzaile bat sortuz. Hala ere emakumeen papera ez zein behar bezala aintzat hartzen eta mugimenduak mundu osoan eragina izan bazuen ere, baztertu egiten ziren.

Maestrok (2009) bere lanean adierazten duen moduan lokaletatik hasia izango litzateke egokiena, *Savoy Ballroom*, *The Cotton Club* edo *Apollo Theater* bezalako guneeetan musikaren sustapen izugarria egin zelako.

Clyde Livingston koka dezakegu lehenengoan, musika beltzaren sustatzaile izan zena *Home of the Happy Feet* bezala ezagututako gunean; *jazz*, *blues* edo *swing*aren zabaltzean ezin bestekoa izan zena. *The Cotton Club*a bestalde, bakarrik zurien sarrera onartua bazegoen ere Duke Ellington, Fletcher Henderson, Bessie Smith, Nat King Cole edo The Nicholas brothers bezalako musikagile garrantzitsuak anparatzen zituen. Hirugarrenean Ella Fitzgerald edo Sara Vaughan bezalako artistak osatzen zuten etorkizun oparoko artisten zerrenda eta musicalsen garrantzia ere gogoratu behar da 1917an irekitako antzokian Ridgely Torrencen *Three Plays of a Negro Theater* ekin.

Harlemeko garapenak "*Jazzaren Garaia*" bezala ezagutzera ekarri zituen urte hauek, "arrazako diskoak" bezala ezagutzen ziren obrak hain ezagunak ez ziren Alberta Hunter edo Clara Smithen ospea ekarri zuten eta iparraldeko erdigune urbanoetatik mundu osora bidaiatu zuen Lehen Mundu Gerra bitartean eta ondoren instrumentu eta interpretazio metodologia berriak txertatuz Hutchinsonek (2020) dioen moduan bere "*Harlem Renaissance American literature and art*" idatzian.

Izen oneko interprete hauen artean kokatzen dira Louis Armstrong bere New Yorkeko Fletcher Hendersonen talde berriarekin, Cab Calloway edo Duke Ellington beste askorekin batera eta burdelei eta zirku ibiltariei lotzen zen genero hau arte gorena kontsideratzea lortu zuten klake edo *charleston* dantzei bultzada emanaz.

Bluesak XX. mendeko tempoan aldatu zuen guztiz eta Harlemeko doluz eta edertasunaz mintzatzen ziren adibidez Gertrude "Ma" Rainey, Memphis Minnie, Lucille Bogan edo Bessie Smith bezalako emakumeak eta hauek *blues* ikasketa anitzetan ahantziak edo baztertuak izan dira kritiko akademikoen eskutik.

Aldizkari kulturei dagokienez, batez ere kutsu politikoz beteak zeudenen artean koka ditzakegu *Survey Graphic*, lehen aipaturiko *Negro Word*, *National Urban League* argitaraturiko *Opportunity*, *The Messenger* edo *Fire!*. Alain Locke zuzenduriko *Survey Graphic* ikerkuntza sozial, multikulturalismo eta kritika literario gaiak jorratzen ziren bitartean; *Fire!* literaturara bideraturiko gazteentzat zuzenduriko literatura artikulua lantzen zituen eta bertatik irten ziren Langston Hughes, Zola Neale Hurston edo Wallace Thurman bezalako idazleak. *The Messenger* beste alde batetik aldizkari sozialista kontsideratzen zen eta *Brotherhood of Sleeping Car Porters* sindikatu beltzari lotua egoten amaitu zuen (Hutchinson, 2020).

Literaturarekin jarraituz Watsonen *The Harlem Renaissance: Hub of Afroamerican Culture*. N.Y.: Pantheon Book (1995) lanean ezin hobe adierazten den moduan poesia eta literaturak lanketa ezin hobea izan zuen. Hain inspiratzailea izan ziren Claude McKayen eskutik *If we must die* (1919), *Harlem Shadows* (1922), *Home to Harlem* (1928) edo *Banjo* (1931) lanetan adibidez oinarri aurkitu zuten askok; Countee Cullen edo Paul Lawrence Dunbar adibidez.

Eleberrigintzari dagokionez, kritikoen ustetan esperimentalista eta oso anitza izan zenak; "iraganeko eta momentuko pentsamendu eta bizipenen adierazle" (Maestro, 2009: 77) zen, mezu politikoekin osatzen zena. Hauen artean aipatzekoak izango lirateke adibidez Eric Walrond (*Tropic Death*, 1926), Walter White (*The Flight*, 1926), Nella Larsen (*Quicksand*, 1928), J. Redman Fauset (*There is Confusion*, 1924) edo Carl van Vechtenek idatzirikiko *Nigger Heaven* (1926) besteak beste.

Nella Larsen, aipaturiko emakume bakarra, Jessie Fauset beste idazle garrantzitsu batekin batera, oso baztertua izan zen bere genero eta mulato identitateagatik. Zola Neale Hurston ere, literatura sustatzaile izugarria izan zena, asko kritikatu zuten bere garaian eta bere liburuak laidotu zituzten Tracy Pricek (2000: 82) dioen moduan "Beltzen Arazoei" buruz ez zuelako hitz egiten baina ez zen horrela, bere eleberrien epizentroa emakumeak izan oi zirelako zapaltzen zuten.

Hurstonek landatar Hegoalde komunitate beltzean emakume batek osotasun sexuala lortzeko jasaten zituen tira-birak erakusten zituen *Their Eyes Were Watching God: A Novel (1937)* eleberrian adibidez baina bertan Amerika zurian jaio izan balitz baino askatasun gehiago zutela adierazten zuen. Bere ekarpen garrantzitsuak hala ere ez zion etekin nahikorik eman eta bere azken aroa neskame bezala pasa zituen, noharroin bezala urteak eman ondoren idazteari eta ikertzeari uzteko ondoren.

Bessie Smith eta Ma Rainey ere oro kritikatuak izan ziren erreferente lesbiko gisa kontsideratzen zirelako eta askoren esanetan errenazimendu hau beltza izateaz gain gaya ere izan zen baina batez ere ezkutuan lantzen zen bigarren ezaugarri hau.

Arte plastikoetara bideratzen badugu gure begirada estetika tradizio afrikarretan edo arte herrikoian bilatzen zuten artista asko aurkitzen ditugu; Aaron Douglas adibidez, pintura tradizionaletik Art Decoak eraginda bere estilo propioa garatu zuena errepresentazio geometrikoen bitartez “arazo eta gai beltzak” landuz.

Askoren esanetan “arte afroamerikarraren aita” kontsideratzen dena (National Gallery of Arts, 2021) bere begiradarekin beltz estatubatuarrak inoiz irudikatuak izan ez ziren bezala erakusten zituen. Paisaia margolari gisa hasi zen gizonak kubismoarekin erlazio oso estua mantendu zuen kolore biziak bezala. Archibald John Motley Jr izan zen beste margolari aipagarri bat, Chicagoko Arte eskolan graduaturiko lehenetariko afroamerikarra izan zen eta batez ere erretratuak egiten zituen oso intimoak eta zuzenak kontsideratzen zirenak.

James Lesesne Wells edo Hale Woodruff grabatzaileak ere errenazimendu honetan kokatzen dira eta hauek Douglasek aina influentzia afrikar eta europarretatik elikatzen ziren. Eskulturara mugituz gero Richmond Berthé rekin aurkitzen gara, estilo errealista batekin “subjektuak argi ñabartu baten azpian kokatzen dituen afroamerikarrak, ia inoiz erakutsia izan ez zen ezaugarri berri batekin; sinpatia” (National Gallery of Arts, 2021). Meta Warrick Fuller eta Augusta Savage ere eskulturagile garrantzitsuak izan ziren garai hauetan, bigarrena aktibista eta *Harlem Community Arts Center*reko zuzendaria izana baina beren lana aurretik aipaturiko emakumeen antzera gutxietsia izan zen.

Beste arte alor bat aipatuz gero James Van Der Zee sartu dezakegu atal honetan; Harlemeko bizitza beltzaren kronista ez ofizial bilakatu zelako argazkilari hau. Bere argazkiek estudioetan eginiko familia formalen paratuetatik hasi eta kabaret, jatetxe, bizartegi edo eliza

beltzetaraino erakusten dituzten eta komunitate aberats, ezberdin eta oparo baten adierazle dira.

Hegoaldeko segregaziotik eta honek zekarren zoritxarretik alde egin zuten gutxieneko beltzek eta Chicago, New York eta Detroit bezalako guneetan lehen Gerra Mundialean behar ziren lan postuak onartu zituzten beste 400.000 armadara joan ziren bitartean; 200.000 Frantziara eta 42.000 gudara bidali zirelarik Boschek (2004) lantzen duen moduan. Harlemeko eremuak bere dibertsitate etnikoaren ondorioz 1916-1930 urte tartean arraza gatazkak minimoak izatea ekarri zuen eta gainontzeko eremuekiko ezintasun politikoaren eraginez beraien irtenbide gisa kultura garapena eta batez ere artea ikusi zuten *The Industrial City: The Multi-Ethnic Frontier of the Twentieth Century*en kontatzen zaigun moduan.

“Orain sortzaile garen artista beltz gazteok gure azal beltzeko indibidualitatea aditzera emateko intentzioa dugu beldur eta lotsarik gabe. Zuriak ados badaude poztan gara. Ez badaude ez du axola. Ederrak garela dakigu. Eta baita itsusi.” - Langston Hughes (1926: 692-693)

3. BI PELIKULEN ANALISIA

3.1 THE BIRTH OF A NATION (1915)

3.1.1 Testuingurua

*Ku Klux Klan*aren sorreraren inguruzko fikziozko istorio hau historialari askok izendatu duten moduan “Zinema estatubatuarrean iraultza ekarriko zuen” (Stokes, 2007: 3). Lehen 2 urteetan 10 milioi estatubatuarrek filma ikusi zutela kalkulatu da eta proiektzioarako saldutako sarreraren prezioa berrogei aldiz garestiagoa zen beste edozein filmekin alderaturik, bi dolarerara iritsiz. Proiektzio honek nazio osoan zehar indarkeria arrazista eta gatazka ugariak ekarri zituen; lintxamendu eta *KKK*ren berpizteraino. Angek (2020: 3) adierazten duen moduan “*The Birth of a Nation*en estreinalditik 6 hilabeteetara *Klan* hau handitzen joan zen 4 milioi kide izateraino” eta horrez gain argi uzten digu pelikula hau proiektatu zuten guneek probabilitate gehiago zutela *KKK*ren errenazimendu horretan parte hartzeko ez zutenek baino. Gainera gehitu beharra dago urteetan zehar egin diren proiektzioarekin batera supremazismo zuriaren indizeen gorakadak eman direla eta baita gorroto krimenak ere gutxieneko arrazen aurka.

1915 baino lehen zinemaren industria oraindik garapenerako lehen pausoak ematen ari zen eta ondorioz eremu askok ez zuten antzoki bat, ez ziren gai pelikula honen

proiektzioarekin batera zetorren orkestrarentzat lekua egiteko edo teknikoki ez zeuden prest 3 orduko proiektzio masibo honi aurre egiteko. Baina hala ere 20 eta 100 milioi dolarreko tartean kokatzen ziren irabaziak biltzera iritsi zen bere estreinaldian (Monaco eta Lindroth, 2000).

Woodrow Wilson Estatu Batuetako 28. Presidenteak kargua burutu zuen bitartean, hau da 1913tik 1921 arte, arraza-segregazioaren aldeko mugimenduak burutu zituen, aurretik aipatu dudan moduan. “Bananduak baina berdinak” goiburuarekin babesturik lan guneak, komunak, jantokiak eta beste hainbat eremuetan bereizketan egiten zituen, kongresu eta gobernu agentzia ezberdinetan eskua sartzeko. Hau batez ere egoitza-segregazioarekin nabarmendu zen patroi ezberdinak aurkeztuz adibidez Alabamako hiri txikietan finkatze-gune zenbaki zehatz bat kokatuz eskusiboki afroamerikarrentzat.

3.1.2 Sinopsia

Bi familia zurien istorioa kontatzen zaigu; iparraldeko Stonemanena eta hegoaldeko Cameronena. Hauek egoera zail bat igarotzen dute Gerra Zibila eta Berreraikitze garaia gertatik eta bi familietako hainbat anai hiltzen dira gerra honetan. Hau gertatu ondoren filma Ben Cameron pertsonaian ardatzen da eta nola honek *KKK*a sortzen duen Austin Stoneman eta errepublikanoen nagusitasuna saihesteko. Erasotzen dituzten beltz basati eta mendekatiak, politiko santujale zurien, lapurren, mulata maitale maneatzailen, politiko mulato manipulatzailen eta Flora, konferedatuen alabaren heriotza grafikoen ondoren, Stoneman eta Cameron familiak ezkontza bitartez elkartzen dira estatuaren elkartzearen sinbolo gisa (Bernardi, 2013).

3.1.3 Analisia

“Jendeak industria zinematografikoa lehen aldiz benetan serio hartzera bultzatu zuen lehen pelikula da.”- Mary Pickford, Zinema Akademiako fundatzaileetako bat (National Public Radio, 2015).

Filmeko lehen irudian (Figura 1) jadanik Griffithek bi esklabo beltz erakusten dizkigu, merkatari baten aurrean ia belaunikaturik eta honen bitartez pelikula errealista bat erakutsiko zaigula adierazi nahi digu, arrazarekin erlazionatua dagoena eta Roginek (1985) dioen eran modu erakargarri batean non ikusleen alde emozionalean izango duen eragina, eta ez arrazionalean.

Griffithek filmak egiteko sistema narratibo berri bat sortu zuen non zinematografia pertsonaien psikologia eta garatzearen zerbitzura jartzen duen, filmaren garapen propioarekin batera ondorio moralak lortu nahian.

Filma aurrera atera zen momentuan, jada esan dudan moduan, *KKKa* ez zen aktibo. *New York Timesen* (1868) adierazi zen bezala filmean erakusten den Berreraikitze garaian (1865-1877) soldadu konfederatzaileek lider politiko beltzen eta hauen aldeko zuriaren aurka mugimendu bat sortu zuten eta soilik nazioaren hegoaldean jarduten zuten. Estreinalditik sei hilabetera William J. Simmonsek bigarren *Ku Klux Klana* sortu zuen Georgiako *Stone Mountain* gailurrean gurutze bat erre zuenean, berrogeita hamar estatuetan zehar *Klavern*-ak kokatzera iritsi zen eta nazioko biztanleria heldu zuri eta gizonezkoen %10 taldearen parte izateraino zabaldu zen (Fryer eta Levitt, 2007). Ezin da ukatu beraz filmak izandako eztanda izugarria izan zela, bai biztanleria arruntarentzat bai lurralde hauen mugan kokatzen ziren hiritarrentzat, teoria arrazistek eta egoera sozialak bultzatuak sentitzen zirelako. *Klaneko* janzkeretan eragina izateraino iritsi zen pelikula non Kinneyk (2016) bere lanean adierazten duen moduan *The Birth of a Nation*en kideak tunika zuri eta kapela zuriekin daude jantzirik eta bigarren *KKK*ren belaunaldia etorri arte hauek tunikak askotan beltzak ziren eta animalia ezberdinen adarrak edo mago kapelak eramaten zituzten buruan.

Gainera supremazia zuria eta estereotipo afroamerikarrak sustatzen zituen film hau erakustera animatu zen ere David Duke kide berriak erakartzeko intentziaz (The Southern Poverty Law Center, 2011) eta lehen esan bezala arrazakeria krimenen gorakada izugarriak ekarri zituen honekin.

Esklaboak "pertsonaia" binario bezala erakusten dira eta Bernardik (2013: 84) azaltzen duen moduan pertsonaia hauek "arima leialak" dira supremazia zuri honen alde jokatzeko dutenak edo neurritz kanpo sexualizatutako eta puztutako astakirtenak, mendekuagatik itsutuak. Gainera, hau *blackface*aren ondorioz gehiago eramaten da muturreraino, guztiz argi uzten duelako zuriek belztasunarekiko duten iritziaren erakusle direla berezko belztasunaren adierazle baino. Zuritasunaren aurkako mehatxu bezala identifikatzen zen zuria ez zena eta jarrera arrazista hauek noski, sozialki onartuak zeuden.

Hau ikus dezakegu adibidez filmeko sekuentzia nagusienetariko batean non Gus, beltzez pintaturiko aktore zuri bat, Flora Cameronen atzetik basotik jarraitzen duen (Figura 2) hau berarekin ezkontzeko behartu nahian. Florak amaieran alde egiteko aukera bakar bezala ikusten du labar batetik botatzea. Zinegilearen *The Girls and Daddy* (1909) laburmetraian

bezala non berriro ere aurpegia beltzez margoturik duen gizon bat lapurreta batetik deskuidatzen den bi neskato zuri ederren ondorioz, Griffithek bi pertsonaien artean gatazka sortzen du edizioaren bitartez, batetik bestera pasatuz eta hirugarren lokalizazio bat gehituz. Bertan Ben Cameron ikusten da Elsie Stoneman askatzeko bidean Silas Lynch mulatoaren eskuetatik *Klanaren* laguntzarekin. Jarraian Ben talde supremazistarekin elkartzen da berriro Gus aurkitzeko intentziaz (Figura 3) eta hau harrapatzean zikiratu eta lintxatua da berriro ere Ben heroi gisa erakutsiz, Flora salbatzeko gai izan ez bada ere. Adorez beteta, Ben, antzezpen baten parte denaren itxura hartzen duen jarrerarekin sexualitate dominatu eta kontrolatu bat erakusten du *Klanaren* parte bilakatzen denean eta bere “gizontasuna” kontrolatzen du momentu egokian ondoren honetaz baliatzeko eta mendekua lortzeko (Kehr, 2002: 30-33).

Cine Doréko Cine Prohibido zikloan (Filmoteca Española, 2011) adierazten den bezala Ben Cameroni ume zuriak izara zuri batzuek jantzita beltzak diren beste ume batzuk beldurtzen ikusten dituenean inspirazioa iristen zaio (Figura 4) *KKK*ren tunikei dagokienez eta honek ezin hobe sinbolizatzen ditu hurrengo sekuentzietan zuri hauek beltzekiko hartzen duten mamu papera.

Gerra Zibilaren interpretazio hau Wilson, garaiko presidentearen, *A History of the American People* (1901) liburua tresna gisa erabili ondoren filma idatzi zuela ere ondoriozta dezakegu bere ikuspegia legitimatzeko. Honi Bernardik dioen moduan “Grant Generalaren aurrean egindako Robert E Leeren amore ematea edo Washingtonen jazotako Lincolnen hilketaren edo emantzipazioa sinatzen duen eszenak gehituta gainezartze zuriaren ideologia “zehaztasun” historikoarekin estaltzen du” (Bernardi, 2013: 86) (Figura 5) lehen aipatutako errealimoa sustatuz. Honez gain zuzendariak Berreraikitze garaian landutako XIII, XIV, XV. zuzenketak eta esklabotzaren amaiera libreki interpretatu zituen eta Stoneman gizonetako batek legea ezartzen du eta ez Kongresuak, errealitatean gertatu zen moduan. Honekin zinemagileak autoritarismo jarrera bat salatzen du eta gehiegizko boterearen erabilera gaitoa (Piccinelli, 2015). Hala ere nahiko hipokrita da bere partetik Stonemani boterea ematean salatutako jarrera bera hartzen duelako.

Supremazismo zuriaren ideia garaiko Darwinismo sozialaren gorakadarekin batera garatu zen eta honek sistema sozioekonomiko guztiz desparekatu batean gatazkak bizitu besterik ez zituen egiten, ideologia proba enpirikoen gaineratik jarri zuen. Darwinismo sozialak “gizonak” subespezie biologiko ezberdinetan banatzen ditu: mongolikoak, negroideak eta kaukasikoak. Aipaturiko azkenengo taldea da nagusitasuna duena, batez ere arioak gainerakoek

eskubiderik edo sistema demokratikoaren parte izateko aukerarik ez duten bitartean. XIX. mendean nagusitu zen teoria hau Hegoaldeko Karolinan kokaturiko sekuentzian ikus dezakegu aplikatua non legislatzaile beltzaranak oilaskoa jaten ikusten diren oinak mahai gainean dituztelarik emakume zuriak modu lizun batean begiratzen, beraien betebeharrak burutu nahi ez edo ezin dituztela erakutsi nahian, beraien natura basatia baztertu ezinik.

Hala ere pertsonaiarik beldurgarrienak mulatoak bezala haragitzen ditu zuzendariak, Darwinen teorian adimena hobetzen dutelako arrazarteko erlazioek baina ez morala, mulato hauek sortzen duten mehatxua handiagoa bilakatu. Filmean zehar pertsonaia hauek argiak, azkarrak, manipulatzaileak eta inmoralak dira adibidez Austin Stonemanen neskame mulatoak bere arropa urratzen duenean gizon zahar bat limurtzeko (Figura 6), kongresuan zapatak kentzeraino eta oilasko errea jatera iristen direnean instituzioagatik errespeturik ez dutela irudikatuz (Figura 7), bertan sekulako gatazkak sortzera ere iritsiz (Figura 8) .

Gaizki honen edo mehatsu honen amaiera gisa aurkezten zaigu *Ku Klux Klana* eta batez ere amaieran ondoriozta dezakegu hau, paraleloki landutako edizio baten bitartez. Jarraipenezko bi eszena erakusten zaizkigu, bata bestearen ondoren. Lehenengoan, neskato txiki bati egindako lehen plano baten ondorioz (Figura 9) umearen inozentzia eta beldurra aireratzten zaio ikusleari. Bigarreanean aldiz, Lynch eta bere kidea Elsie ezkontzeko behartzen saiatzen ari dira eta bi sekuentzia hauen jarraipenaren ondorioz ikusleak berehala heroi gisa identifikatzen du momentu justuan iristen den *Klana* tentsio narratiboa gainezka dagoenean, climaxa ekarriz. Jozajtisek (2002) bere artikuluan adierazten duen moduan herioak argiztatuak agertzen dira etengabe pantailan eta arloteak ilunak eta itzalez beteak erakusten dira beraz, ikusleak berriro ere ez du zalantzarik zeintzuk diren jainkoak aukeratu dituenak eta zeintzuk kondenatuak. Errepresentazio honek *Minstrel* generoa onartu eta gozatzen duen ikuslea eskatzen du eta honen ondorioz kulturalki zurtasunaren nagusitasuna ontzat ematea, oharkabean bada ere. Eppen (2003: 21) lanean adierazten den moduan “zurtasunak belztasuna menperatzen duelako, honek kontrola galdu duenean ere”

Filmaren sorrerak ere zuzeneko ondorioak ekarri zituen, bai zinemari dagokionez eta baita Griffith berarentzat ere. Jakina da zinemagilea historian zehar egon den garrantzitsuenetarikoa kontsideratzen dela narratibaren alde egindako berrikuntzengatik baina ezin da alde batera utzi landutako gaien ezegokitasuna, testuingurua kontuan izanda ere. *Klanaren* jardunen gorakadarekin batera Griffith beligerante mantentzen zen eta filmaren arrazismoa ez zuen onartzen, honek *KKK*ren agendan izandako eragina nabaria

izanda ere. Griffithek (1915: 168-170) erantzun kritikoen kontra jokatu zuen “publizitate bilatzaileen eraso antolatu” baten aurka “isiltasun duin” bat mantenduz. Guzti hau noski bere filmografia guztian zehar mantenduriko narratiba izan da eta marketing estrategia gisa ere identifika daiteke eztabaida teknika errepikakor hau.

Paul McEwan (2007) zinema irakasleak dioen moduan pelikula hau zinemaren analisi ideologikoa erakusteko tresna ezin hobea da; audientzia jarrerak interpretatzeko balio duelako eta historia nola azaldu daitekeen erakusteko.

Beste alde batetik beltzek garaturiko zineman eragina izan zuen filmak ere, sustraiak mugiaraziz eta industria berri bati sorrera emanez. Honen adibide dugu Oscar Micheauxen 20.hamarkadako *Within Our Gates* (1920) filmaren amaiera; *The Birth of a Nation* luzemetraiaren amaieraren “omenaldi” gisa ikus daitekeena. Filme honen climaxean gizon zuri baten eskutik emakume beltz baten bortxaketa saiakera bat ikusten dugu, bere familia egin ez duen krimen batengatik lintxatua den bitartean. Historikoki ekintza zehatz baten berreraiketa bat ez bada ere, Griffithen lanek baino zehaztasun eta egiazkotasun handiagoa erakusten du Micheauxek eta *The Birth of a Nation* bezalako pelikulek estaltzen dituzten supremazismo zuriaren mamuak aireratzen ditu.

Estatu Batuetako zinema industrian eta kulturen bertan izugarritzko eragina izan zuela onartu beharra dago, *Ku Klux Klan* bezalako entitate baten birsortzea ekarriz estreinalditik hilabete gutxi batzuetara. Hala ere gaur egun eztabaida askoren sortzaile izan da, Roger Ebert (2003) kritikoaeren hitzetan egungo ikusleentzat erronka bilakatzeraino. Gerra sekuentzia gogorrak ulertzera iritsi gara gizarteak izandako garapen eta aldaketen ondorioz eta “uzkurtu egiten gara besaulkietan ia komikoki arrazistak diren gerra ondorengo eta Berreraikitze eszenetan”. Richard Brodyk *New Yorkerren* (2017) ere antzeko esaldi bat idatzi zuen non egungo ikusleek Gusen gorpua Lynchen atean abandonatzen duten sekuentzia lizun eta ikaragarri gisa interpretatzen duten, Griffithek ikusleagoa pozteko eta hunkitzeko intentzioa duenean (Figura 10). Brodyren hitzetan ere filmaren amaieran interpretazio antzekoa burutzen da zurien ekintzak bidegabe eta krudel bezala ikusten direlako, gaur egun afroamerikar babesgabeak pistola batekin destatzen dituztelako besteak beste. Itxurazko maitasun kontakizun bat garatuz doa baina atzealdean oinarritzko gaia *Ku Klux Klanaren* kemena da; ez da inoiz *Klanaren* ezkutuko ekintzen berri ematen. Griffithek ulermen herrikoia errepresentatzen zuen, jadanik existitzen ziren usteak puztuz irakatsi ordez *Deja vu* antzeko bat ekarriz zinema pantailetara.

Eragin soziala ez zen bakarrik zinema beltzean ikusi, NAACP (Koloreko Pertsonen Garapenerako Elkartea Nazionala) bezalako erakundeak ere beste hainbat organizazioekin batera protesta eta boikot ezberdinak prestatzeari ekin zioten filmaren estreinaldiarekin eta garapenarekin batera. *The Crisis* NAACParen aldizkarian adibidez W.E.B. Duboisek, garaiko Estatu Batuetako intelektual nagusienetariko batek idatzi zuen eta egoerarekiko deserosotasuna erakutsiz.

Filmak estereotipo arrazista hauek erabiltzen ditu beltzen portaera politika zurien gogortasunarekin justifikatuz eta zuriek beltzak guztiz kontrolatzen zituztela argi erakusten du, aktore beltzak etengabe erabili ordez hauek soilik turbatan kokatuz eta ez dute hitz egiten marmar edo orroekin ez bada (Epp, 2003). Pertsonai beltz hauek hitz egin edo parte hartze minimo bat badute filmean; *blackface*aren bitartez errepresentatzen dira eta turbetako afroamerikarrak ez dira kredituetan ere agertzen.

“Griffithek estiloaren eta narratiba zinematografikoaren alde eginiko berrikuntzak ez zeuden narrazioaren zerbitzura, supremazismo zuriaren zerbitzura baizik.”- (Bernardi, 2013: 95)

3.2 DJANGO UNCHAINED (2012)

3.2.1 Testuingurua

Estatu Batuetako historia ia bere osotasunean goraipatua izan da eta zatirik higuin garri eta gogorrenak isilaraziak, natibo amerikarren genozidioetatik hasi eta esklabo Afrikarren esplotazioraino. Hollywood beti egon da aldendua gai hauetatik, edo behintzat errealitatea ikusleengandik ahalik eta urrunen mantentzeaz arduratu da.

Afroamerikarrak ikuspegi historiko batetik botere sistema baten menpe gelditu dira esklabotzaren ezeztatzea eman bazen ere eta hau adibidez ikus daiteke McNeillen (2014: 6) testuan hurrengo esaldiarekin: “XX.mendeko 60. hamarkadararte herentzia afroamerikarra zuen edozeinek intelektualen eremuetan edo zirkulu akademikoetan sartzea ia ezinezkoa zen.”

The Birth of a Nation filmean landuriko eta jadanik aipaturiko beldurra ere ezinbestekoa izan da, politika eta zinemaren lotura estua erakutsiz, zinema azken batean subjektibotasuna eta inguruan dugun munduarekin daukagun erlazioa erakusteko giltza delako (Mircea, 2013), testuingurua eta bertan kokatzen zen gizartea ezagutzeko.

Dena aldatu zen 11 Saren ondoren. Kanpokoaren aurkako aurreiritziak zituen gizarte estatubatuarrean segurtasun neurriak areagotzearekin batera, beldurra ere areagotu

zen, esan bezala. Orwellek (2013) argi adierazten zuen bere 1984 liburuan; “Ez dago estatu bat elkartzeko modu hoberik “bestearen” aurka gerra egitea baino” eta gertakizun honen ondorioz kanpo erasoen edo eraso posibleen aurka estatua gehiago elkartu zen.

Hollywood arlo honetan nahiko partziala agertu da, gaia oso gutxi landu du eta estatubatuarra den gizarte batean sortua egonda, nahiko bitxia egiten da. Azken urte hauetan hala ere, esklabo amerikarren iraganari buruzko filmak egiten hasi dira, Hollywoodeko produktu gehienak gizon zuriek eginak izanda ere. Zuzendari zuri horien artean dugu Tarantino; bere estilo propioa osatzeko gai izan dena eta indarkeriaren errepresentazioagatik kritikatu askotan.

3.2.2 Sinopsia

1858 inguruan kokaturiko istorio honetan Django, esklabo askatu baten istorioa kontatzen zaigu, Dr. King Schultz dentista ohiarekin elkartzen dena. Schultz ordainsari ehiztari bat da luzemetraian zehar eta Anai Britaniarrak identifikatzen laguntzen dionean Django askatzen du eta Broomhilda, Djangoren emaztea erreskatatzen lagunduko diola hitzematen dio Candyland plantaziotik. Bertan Schultzek erakutsi dizkion gaitasun linguistikoez baliatzen da egoera bere alde jartzeko eta azken sekuentzia epiko baten bitartez, askatasun totala lortzen du.

3.2.3 Analisia

Geruza ezberdinez hornitua dagoen film honetan esklabo askatu baten mendeku jarduna kontatzen zaigu, non justizia eta morala jokoan jartzen diren etengabe bere askatasun propioa eta bere emaztearen erreskatea garatzen duen bitartean. Dr. Schultz bere mentore bilakatuz, “abentura” antzeko bat hasten dute eta tartean beste hainbat pertsonaia agertzen zaizkigu, egoeraren tirabirak konplexuagoak bihurtuz eta esklabotasuna esplizituki erakutsiz, gordin, krudel.

Supremazia zuriaren aurka dagoen oztoporik edo arazorik larriena afroamerikarrak dira.

Filmek ezin dute iraganaren inguruko egi osoa jaso, ideia baten lanketa soila eskaintzen dute eta agian pentsatze prozesu bat ekiten ikuslearengan. Filma guztiz historikoki zehatza den zalantzan jarri izan bada ere estreinatuta zen momentutik, ezin da ukatu estatubatuarren gehiengoak ahaztu nahiko luketen historiako momentu bati buruz hitz egiten duela, lehen esan dudana moduan. *The Birth of a Nation*ek bere eran KKKren erreforma bat sustatu zuen

bezala, bere eduki eta Gerra Zibilaren gaiaren lanketagatik, McNeillek (2014: 13) dioen bezala Estatu Batuetako “iragan esklabista” agerian uzten du.

*The Birth of a Nation*en esklaboak batez ere atzealdean erakusten diren bitartean film osoan zehar edo *blackface*aren bitartez estereotipoak areagotzen dituen bitartean, *Django Unchained*ek filmeko protagonista bihurtzen du askaturiko esklabo beltz bat eta honen heroiaren bidaia lantzen du, sinboloez beteriko garapen bat adieraziz. Esklabotasuna lehen filmean ekintza beharrezko eta on gisa erakusten da, Hegoaldeko gizarteak funtzionatzeko ezinbestekoa eta ezegonkortasunean oinarritzen den gobernu ezeztatzeko nahitaezkoa. Bigarrenean aldiz biolentziaren faktorearekin lagunduta esklabotzaren errealitate krudela erakusten da, azken batean gizaki batzuk beste batzuk indarkeriaren bitartez menperatzen dituztela alegia, irabaziak lortzeko intentzio soilez degradazioaz lagunduz.

Amaieran aurkezten zaigun protagonista oso ezberdina da hasierakoarekiko, libre eta kontzientzia propioa duena, indartsua eta harroa. Esklabo kate baten parte dugu protagonista, gorputz beltz eta izerdituen artean hauetako bat besterik ez da, basamortuan zehar dabilena (Figura 11). Beraien bizkarretan marka eta ebakiondoez beterik daude jasandako neurrigabekeriak erakutsiz (Figura 12) eta hasierako tituluak pasatzen ikusten ditugun bitartean gizon hauek ingurune ezberdinetatik pasatzen ikusten ditugu, klima mota ezberdinak pairatuz. Momentu horretan Dr. Schultz beste mundu batekoa balitz bezala agertzen da, *The Lord of the Rings* pelikulako Gandalf bezala, tunika gris batekin eta McNeillek (2014) dion bezala hizkuntza eta intelektual maila gorenarekin gainontzeko pertsonaiekin alderaturik. Django orduan begirada lurretik altxatu gabe tonu baxuan aurkezten zaigu, otzan, beldurrez (Figura 13). Honekin ikus dezakegu zurien esklaboen edo hobeto esanda beltzen arteko dinamika nolakoa zen, kontatu gabe, soilik erakutsiz. Ikusleak orduan ulertzen du nondik datorren Django eta zergatik duen mesfidantza hori edozeinekiko film osoan zehar. Zuriekiko beldurra mantentzen ikasi du eta beraien ekintzetan ez fidatzen, honek lagunkoia badirudi ere.

Dr. Schultzek orduan Django erosten du eta hil berri duen gizonaren jaka eta zaldia hartzeko esaten dio. Djangok bere manta kentzen du eta soinu efektu batez lagundurik Tarantinok esandako protagonistaren garapen bidaiaren hasiera markatzen du.

Aipagarria den beste sekuentzia bat da ere adibidez lehen herrira iristen diren momentua, Daughtreykoa zehazki. Bertara iristen diren momentuan herritarrak Django begiratzen dute harriduraz, ezin dutelako ulertu zergatik gizon beltz bat zaldi gainean dabilen

(Figura 14) eta hau planoaren perspektiba bitartez azpimarratzen da. Urka ondotik igarotzen dira, kamera geldoan eta urkaren sokak momentu batean Djangoren burua inguratzen du (Figura 15), ikuslearengan ezin egon sentsazio bat sortaraziz, bere etorkizun posible bat agerian jartzen digulako, bere egoera soziala sekuentzia sinple batean laburbiltzen digulako; Django gizon askea da, baina inor ez da ohartzen bere azalaren koloreak gehiago axola dielako.

Dr. Schultzek ondoren Djangoren bigarren jarrera aldaketa batera bultzatzen du, arropa propioa aukeratzen uzten dionean (Figura 16) bere irabaziak eskatzeko ekitaldi batera joateko. Djangok momentu horietan tonu baxua mantentzen du, bere mentorearen papera hartu duen gizonaren erantzunak barneratuz. Trajea aukeratzean gizonak arropa guztiz elegantea hautatzen du eta orrazkera berri bat, bizar zaindu batekin batera bere identitate propioa garatzen hasi dela erakutsiz.

Plantazio bat erakusten zaigu jarraian, eta ez da *The Birth of a Nation* bezala esklabo dantzari eta zoriontsuez osatua dagoena, guztiz kontrakoa baizik. Batzuk denbora librean zabu batzuekin jolasean eta paseatzen erakusten zaizkigun bitartean, emakume bat arrautza batzuk puskatzeagatik arrastaka eramaten dutela ikusten dugu, lotu ondoren jipoitzeko (Figura 17). Ezin da ukatu honekin berriro ere esklabotzaren eta sistemaren alderik gogaikarri eta gupidagabeena azaleratu nahi duela Tarantinok.

Mandingen kirolaren bitartez esklaboak beraien posizio sozialean ezer ezin dutela egin erakusten zaigu eta nola propietate soila diren, jabeen esanetan daudenak. Bi gizonak beraien bizitzagatik borrokatzen dute (Figura 18), animalia basatiak balira bezala tratatuak izan ondoren eta bitartean ikuslea bere eserlekuan mugiarazten du, krudelkeriak jota. Gelako esklaboen aurpegi neutralek ere ezinegona sortarazten dute baina hauen aurpegiak aldatzen dira batak beste kidea hil behar duen momentuan jabearen entretenimendu hutsagatik.

Filmeko sekuentziarik gogorrena hala ere Calvin Candiek jadanik balio ez dion esklabo bat txakur batzuez baliatuz txikitzen duena da. Hau jazo baino lehen jadanik esklaboa jipoitua izan dela ondoriozta dezakegu, begi bat handitua duelako eta aurpegia guztiz kolpatua, desitxuratua. Berriro borrokatzeari uko egiten dionean Candiek gizona txakurren harrapakin bilakatzen du (Figura 19).

Hala ere egoeraren hostasunak soilik Dr. Schultzi erasan diola ikus dezakegu, ondoren burutik atera ezin duelako gertatutakoa. Ikusitakoaren gogortasunak jarraitzen dio mamu bat

bezala, bere itzala balitz bezala eta amaieran bere onetik ateratzen du tiroketa batekin erakusten zaiguna, egoeraren climaxa lortuz.

Tiroketa horrekin Django guztiz libre da eta autoestimu handiaz lagundurik Broomhilda erreskatatzera bideratzen da eta mendeku bilaketa hori gailurrera iristen da; min egin dion guztiarekin apentzen da, txakurrek gaztea suntsitzen zuten momentuan erreakziorik izan ez zuten aztarnariak exekutatzeko dituzten eta hauekin batera Candylanden dauden zuri guztiak. McNeillek (2014: 56) dioen bezala: “ Tarantinok *Inglorious Basterds*en egiten duen moduan, inoiz jazo ez zen mendeku bat eskaintzen du, mendeku sinboliko bat.”

Aipagarria da heriotza hauek ematen diren momentuan Stephenek, etxeako esklabo zaharrak, beti Candyland bat egongo dela esaten diola, Candyland bezalako gune bat posible egiten duen sistema suntsiezina eta saihetsezina delako. Hala ere Django Candyland txikitzen duenean argi uzten du eta ikusleari batez ere argi gelditzen zaio sistemak ez direla betirako eta erreakzio bat sortarazten du protagonistaren alde berriro ere (Figura 20).

Esklavo zahar honek filmean Candieren lekaioa badirudi ere, berak eta gainerako etxeoko beltzek sistemak duten papera barneratua dute (Figura 21) eta ezin dute sistema honetatik at pentsatu, leku eroso bat aurkitu dutelako bertan. Heriotzarekin aurrez aurre dagoenean ere Stephen ez da gai sistematik haratago begiratzeko (Figura 22) eta honekin erakusten zaigu nola sistemak esklavo hauek inguruan dituzten zuriak bezala pentsatzera eraman dituela, batez ere Stephen. Gizon zuriak beste arraza baten beharra erakusten du, kasu honetan beltza dena bere autoritatearen figura mantentzeko bestea ezin zirelako zuriak izan, ezin duelako sistemaren parte onuraduna bilakatu. *The Birth of a Nation*en ez bezala sistema hau beraz probetxuzkoa da soilik boterea dutenentzat eta ez gizartearen gehiengoarentzat. Django ordea sistema hau bere onerako erabiltzea lortzen du modu batean eta Bell Hooks (2000) idazle eta aktibistak bere teorietan dioen moduan gizon beltz batek gizon zuriaren arauak jarraituz gero gizarte amerikarrean garatzeko aukera du.

Candieren pertsonaiara bueltatuz hegoaldeko familia dirudun eta plantazio jabeen errepresentazio oso ezberdina egiten zaigu *The Birth of a Nation*en egiten denarekin alderatua; zuzenean Tarantinok bilau kapitalista bat irudikatzen digu bere ingurune zurian mugitzeko gizatasunez erlazionatzen dena baina beraien gaineratik ere kokatuz. Candie zuria ez denari gizatasuna kentzen dion sistemaz baliatzen da etekinak ateratzeko eta berriro ere hau bere arrazismoa eta esklavo jabetza arrazoitzeko erabiltzen du Karl Marxek (1955) Pavel Vasilyevich Annenkori idatzitako gutun batean azaldu zuen moduan “Esklabutza sistema

burgesarren oinarri da, esklabotza gabe ez dago kotoirik eta kotoi gabe ez dago industria garaikunderik.”

Candiek garaiaren ezegokitasun, arrazismo eta endekapena errepresentatzen du; elite atzerakoi bat non Peñak (2018) dioten moduan gizakia izatez gaiztoa denaren arketipoa betetzen den bera edo bera bezalakoa ez den edozein baztertuz eta biolentziaren baliabidea erabiliz etengabe (Figura 23), legea bere indarkerian oinarrituriko nortasuna justifikatzeko baliatuz (Marche, 2012) Darwinismo sozialaren oinarri diren ezaugarriak ere aipatzera iritsiz (Figura 24).

Zuzendariak biolentzia fisikoaz gain hizkuntzaren baliabidea jorratzen du arraza ezberdintasunak azpimarratzeko, honek ez digulako soilik botere rol bat errepresentatzen, baita gizarte estatus bat. Zuriek hizkuntza bat baino gehiago maneiatzeko gai diren bitartean beltz gehienak analfabeto gisa errepresentatzen dira edo hizkuntza oso pobreaki erabiliz, botere gehien dituzten hizkuntzak ikastera behartuak direlako.

Calvin Candie eta Dr Schultzen antagonismo zuzena alde batera utzita, biolentza oso presente dagoela landu beharra dago. Odolaren jario konstantea ukazina da, esklaboen bizkarretako marketatik hasi eta Candie beraren eskuraino, kopa hausten duen sekuentzian. Esklabotzari modu gordinean hozka egiten dion harren, Tarantinoren obra guztiz fikziozkoa da eta postmodernoa kontsideratu dezakegu, metafikzio historiografiko bat, (Lopez-Osa, 2018) baina ekintza historiko egiazkoen esanahitik aldentzen ez dena. *12 Years a Slave* filmak ikuspuntu historikoki serio edo zehatzagoa mantentzen duen bitartean publiko helduago bati zuzendua egonda, *Django Unchained* obran ikusle gozago eta kultura popularraren kontsumitzaile denarentzat zuzendua dago. Peñak (2018: 32) dioten moduan “Historiako momentu ilun bat gogorarazten dio ikusleari eta horrez gain pentsarazi filmaren testuinguru propioari buruz”. Eremuek, spaguetti westerrean hain landua den sinbologia eta esanahi anitzak hartzen dituzte eta estereotipoen parodia bat garatzen du narratiban zehar, errepresentazio historiko tradizionalen aurka jokatzuz.

Tarantinoren hitzetan estreinaldiko lehen hiru hilabeteetan mundu osoan zehar 400\$ bildu zituen (Vogel, 2018) filma modu batean edo bestean *The Birth of a Nation* erantzun gisa garatu zen, honen estreinalditik 98 urteetara hain zuzen ere. *Decine21* (2015) aldizkarian lantzen Terry Grossekin egindako elkarrizketa batean argi adierazten du bi indarkeria mota daudela filmean zehar landuak, esklaboek 245 urteetan zehar jasandakoa eta mendeku gisa Djangok erabiltzen duena.

Zuzendari berari ere *12 Years a Slave* filmaren inguruan galdetu zioten, urte bat berandu ago irten zenarekin batera “esklabotzaren olatua” hartu zuela kritikatur. Berak gaia lantzearen ilusioa adierazi zuen hainbat elkarrizketetan, adibidez Henry Louis Gates Jr.ek (2012) *The Root* aldizkarian esan zuen moduan “Ezin dut sinetsi, Amerikar historiaren garapena ikuspuntu sendatzaile eta kritiko batetik lantzearen garaia garrantzitsua delako.” Zuzendariak gainera elkarrizketa berean ez ditu Thomas Dixon Jr. eta Griffith goraipatzen beste askok bezala beraien zinema munduarekiko ekarpena soilik kontuan hartuz “Nurembergeko epaiketetan gerrako krimenen errudun kontsideratuko ziren eginiko filmagatik eta honek ekarri zuenagatik.”

Trauma esklabotzaren oinarrietan mantentzen da luzemetraian zehar baina ez da flashback edo ikusizko errekurtsuez soilik baliatzen; kontatzen ez duenak edo koadrotik kanpora uzten duen biolentzia eta sufrimenduak du gakoa. Filma bere baitan ez da narratiboki konplexua, baina lantzen dituen gaiak eztabaidak irekitzen dituzte eta ikuslearentzat esperientzia entretenigarri eta erakargarria eskaintzen du historikoki boteretsuak izan diren gaiak jorrotzen dituelako jabetza, balioa eta bi hauekin erlazionatzen den kapitalismoa, arrazismoaren sustraietako bat. “Sentiaraztera animatzen gaitu filmak, ez pertsonai zehatz batekiko, arrazismoan eta honek ondorioetan baizik” (Brown, 2014: 163).

4. ONDORIOAK

Ondorioztatzeko beraz esan dezakegu afroamerikarrak esklabotasunaren ondorioengatik etengabe bananduak egon direla eta egun aztarnaz beteak. Estatu batzuetan landutako Kode Beltzek, Jim Crow legeek edo Eskubide Zibilen legeek frogatzen duten moduan arraza segregazio hau ofizialki onartzen zen, ez zen kalean bizitako egoera soil bat, indarkeria instituzioetan ere bizirik zegoen. Konstituzioen zuzenketak eta beste hainbat neurri onartu baziren ere talde, erakunde edo mugimendu sozialak, adibidez *KKK*ren sorrerak indarkeria hau areagotu besterik ez zuten egin eta segregazioaren arazoaren sakortasuna airean utzi, 30.hamarkadararte zuriaren nagusitasuna mito bat ez zela ziurtatuz. Arrazismoak beraz juridikoki eta sozialki sustraiak indartu zituen eta beltzen bizitzan izugarritzko ondorioak izan zituen. Egoera hauen aurrean hala ere beren kultura propioaren aberaste izugarria egon zen, aipaturiko Harlemen adibidez eta “beltz identitatea” indartzeko momentua zela frogatu zuen.

Jarrera hauek garaiaren arabera errepresentazio ezberdina izan dute zineman? Ezin da ukatu.Hollywooden lehen urteetan esklabotasunaren sistema Jainkoak ezarritako ordena bat

